



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko irailaren 10a

102. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-24/ITP-00022. Interpelazioa, fiskalitatearen arloko politika orokorrari buruzkoa. Miguel Garrido Sola jaunak egin du (3. or.).
- 11-24/ITP-00023. Interpelazioa, fiskalitatea diru-sarreretarako eta estrategia ekonomikorako funtsezko zutarrri gisa hartu beharri buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (3. or.).
- 11-24/MOC-00093. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Uharteko Izotz Jauregiaren inguratzaile termikoan eta aldageletan egin beharreko inbertsioen kostuaren % 80 finantza dezan gutxienez ere. Mozioa erretiratzea (4. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-24/POR-00260. Galdera, Nafarroara datorren turismo-motari buruzkoa. Ibai Crespo Luna jaunak egin du (5. or.).
- 11-24/POR-00261. Galdera, Nafarroako Gobernuaren kultur programa berekiei buruzkoa. Ibai Crespo Luna jaunak egin du (5. or.).
- 11-24/POR-00262. Galdera, Belateko eta Almandozko tunelak aldi baterako ixteari buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (6. or.).
- 11-24/POR-00263. Galdera, Osasunari buruzko Foru Legea gaurkotzeari buruzkoa. Isabel Aramburu Bergua andreak egin du (7. or.).
- 11-24/POR-00264. Galdera, Alemaniako egoera ekonomiko eta industrialak Nafarroan duen eraginari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (7. or.).
- 11-24/POR-00265. Galdera, Ibarreko erkidego terapeutikoa ixteari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (8. or.).
- 11-24/POR-00266. Galdera, Garapenerako Lankidetzaren Nafarroako Agentzia sortzeari buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (9. or.).
- 11-24/POR-00267. Galdera, Nafarroan etxebizitza dela-eta dagoen problematikari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (9. or.).

- 11-24/POR-00268. Galdera, Europako Next Generation funtsen destinoari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (10. or.).
- 11-24/POR-00269. Galdera, Belateko tuneletako obraren aldi baterako enpresa-elkarte esleipen-hartzaileak obra-plana ez betetzeari buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (10. or.).
- 11-24/POR-00270. Galdera, aurreikusitako inbertsioak erretiratzearen aitzinean Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuak egindakoari buruzkoa. Ana María Elizalde Urmeneta andreak egin du (11. or.).
- 11-24/POR-00271. Galdera, Nafarroako presio fiskalari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (11. or.).
- 11-24/POR-00272. Galdera, Osasun Departamentuaren eta bere kontseilariaren kudeaketari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (12. or.).
- 11-24/POR-00273. Galdera, gastu-aurrekontua murrizteari eta zergak jaitzita nafarren erosahalmena hobetzeari buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (12. or.).
- 11-24/POR-00274. Galdera, 2025eko aurrekontuei buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (13. or.).
- 11-24/POR-00275. Galdera, Taxoareko kirol-instalazioak C.A. Osasunari saltzeko aukerari buruzkoa. Daniel López Córdoba jaunak egin du (13. or.).
- 11-24/POR-00276. Galdera, Nafarroako Gobernuaren erronka eta jarduketa-ildo nagusiei buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (14. or.).
- 11-24/POR-00277. Galdera, bizikidetzaren arloko erronkei buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (14. or.).
- 11-24/POR-00278. Galdera, ERCren eta PSOEn arteko akordioari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (15. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-24/ITP-00022. Interpelazioa, fiskalitatearen arloko politika orokorrari buruzkoa

MIGUEL GARRIDO SOLA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Garrido Sola jaunak egindako interpelazioa, fiskalitatearen arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapideztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Miguel Garrido Solak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Europar Batasunaren austeritate-arauak berriz ezartzeak Nafarroan politika publikoak bultzatzeko ahalmenean dituen ondorioak ikusita,

Fiskalitatearen arloko politika orokorrari buruzko interpelazio hau aurkezten diot Nafarroako Gobernuari.

Iruñean, 2024ko irailaren 5ean

Foru parlamentaria: Miguel Garrido Sola

11-24/ITP-00023. Interpelazioa, fiskalitatea diru-sarreretarako eta estrategia ekonomikorako funtsezko zutarrari gisa hartu beharrari buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako interpelazioa, fiskalitatea diru-sarreretarako eta estrategia ekonomikorako funtsezko zutarrari gisa hartu beharrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapideztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularreko talde parlamentarioaren eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten dio Nafarroako Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari, irailaren 12ko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Fiskalitateak, diru-sarrereren iturri nagusia eta politika ekonomikoaren tresna den aldetik, garrantzi are handiagoa hartzen du egungo testuinguruan, non aldaketa nabarmenak gertatuko baitira administrazio publikoen finantzaketa-ereduetan.

Nafarroako herriak Espainiako gainontzeko herrialdeekin duen konpromisoa beti oinarritu da askatasunean, kohesio konstituzionalean eta ekitatean. Horren aitzinean, nola ulertu behar da PSOEn eta ERCren arteko ituna? Inondik ere, interes partikularrak lehenesten dituen apustu gisa, lurralde banaketa dakarrena eta Espainiaren egonkortasuna eta batasuna arriskuan jartzen dituen.

Hori dela-eta, fiskalitatea diru-sarreretarako eta estrategia ekonomikorako funtsezko zutarrari gisa hartu beharri buruzko interpelazio hau egiten diogu Ekonomia eta Ogasun Departamentuari, aurki aldaketak gertatuko baitira finantzaketa publikoan.

Iruñean, 2024ko irailaren 5ean

Eleduna: Javier García Jiménez

11-24/MOC-00093. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Uharteko Izotz Jauregiaren ingurutzailerako termikoan eta aldageletan egin beharreko inbertsioen kostuaren % 80 finantza dezan gutxienez ere

MOZIOA ERRETIRATZEA

2024ko irailaren 9an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak aurkezturiko mozioa erretiratu izana. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Uharteko Izotz Jauregiaren ingurutzailerako termi-

koan eta aldageletan egin beharreko inbertsioen kostuaren % 80 finantza dezan gutxienez ere. Mozioa 2024ko ekainaren 25eko 90. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

11-24/POR-00260. Galdera, Nafarroara datorren turismo-motari buruzkoa**IBAI CRESPO LUNA JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ibai Crespo Luna jaunak egindako galdera, Nafarroara datorren turismo-motari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ibai Crespo Luna jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren

babesean, honako galdera hau egiten du, Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroan turismoa dela-eta egin ziren aurreikuspenek zioten udan turista ugari etorriko zela gure erkidegora. Nafarroa gorantz egiten ari den destinoa da turistentzat, eta garrantzitsua da horri buruzko hausnarketa egitea, kuantitateari buruzko datu orokorrez harago. Ezinbestekoa da jakitea nor eta zergatik etortzen den bisitan Nafarroara, turismoari zuzendutako politika publikoen plangintzan aitzina egin nahi badugu, eredu propioaren jasagarritasuna lehenetsita.

Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuak zer balorazio egiten du gurera heldu ohi den turistamotari buruz eta horiek gurera etortzeko arrazoiei buruz?

Iruñean, 2024ko irailaren 4an

Foru parlamentaria: Ibai Crespo Luna

11-24/POR-00261. Galdera, Nafarroako Gobernuaren kultur programa berekiei buruzkoa**IBAI CRESPO LUNA JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ibai Crespo Luna jaunak egindako galdera, Nafarroako Gobernuaren kultur programa berekiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ibai Crespo Luna jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuaren kultur programa berekiak –adibidez, Lizarrako Antzinako Musikaren 55. Astea, edo Erriberriko Antzerki Jaialdia, aurten 25. urtea egiten duena– kultur politikak sendotu izanaren adierazle dira, eta horri gehitu behar zaio ezen aurreko legegintzaldian apustua

egin zela ekintza gehiago egitearen alde, programa historiko horiek osatzeko.

Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuak zer balorazio egiten du kultur programa berekien garapenaz eta sendotzeaz?

Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuak zer balorazio egiten du gurera heldu ohi den turistamotari buruz eta horiek gurera etortzeko arrazoiei buruz?

Iruñean, 2024ko irailaren 4an

Foru parlamentaria: Ibai Crespo Luna

11-24/POR-00262. Galdera, Belateko eta Almandozko tunelak aldi baterako ixteari buruzkoa

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, Belateko eta Almandozko tunelak aldi baterako ixteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten

du, Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan abuztuaren 13an, Baztango Udalean Baztango, Malerrekako eta Bidasoa aldeko udaltako ordezkariekin izandako bileran, Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako Departamentuaren ordezkariak iragarri zuten itxi egingen zirela Belateko eta Almandozko tunelak, lur-erazketako lanak egiteko eta, hala, ibilgailuen trafikoarentzako arriskuak ekidin eta N-121-A errepidearen erabiltzaileei segurtasunik handiena eskaintzeko.

Hori ikusirik, hauxe jakin nahi dut:

Lurralde Kohesiorako Departamentuak zer neurri eta ekintza abiaraziko ditu ordezko ibilbideak egokitzeko eta oinarritzko zerbitzuen funtzionamendua ziurtatzeko?

Iruñean, 2024ko irailaren 4an

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

11-24/POR-00263. Galdera, Osasunari buruzko Foru Legea gaurkotzeari buruzkoa

ISABEL ARAMBURU BERGUA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Aramburu Bergua andreak egindako galdera, Osasunari buruzko Foru Legea gaurkotzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Isabel Aranburu Bergua andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilari Fernando Domínguezek Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zergatik da beharrezkoa Osasunari buruzko Foru Legea gaurkotzea? Zeintzuk dira osasun-sistema publikoak hobeki funtzionatzea ekarriko duten lege berriaren proposamen nagusiak?

Iruñean, 2024ko irailaren 5ean

Foru parlamentaria: Isabel Aranburu Bergua

11-24/POR-00264. Galdera, Alemaniako egoera ekonomiko eta industriallak Nafarroan duen eraginari buruzkoa

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak egindako galdera, Alemaniako egoera ekonomiko eta industriallak Nafarroan duen eraginari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Asiain Torresek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Industriako eta Enpresen Trantsizio

Ekologiko eta Digitalerako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Alemaniako industriak pisu handia dauka foru-erkidegoko produkzio-sarean, eta eragina hainbat esparrutara iristen da; hortaz, Alemaniaren egoera ekonomikoak eragin zuzena dauka beti Nafarroan.

Azkenaldian aipatzen ari da Alemaniako ekonomiari buruzko datuak kezka gero eta handiagoa sortzen ari direla ekonomisten artean, eta, are, susperraldia gertatu ordez Alemania berriz sar litekeela atzeraldi batean. Hori dio IFO adierazleak –Alemaniako enpresa-konfidantzaren adierazle nagusiak–, berriz ere jaitsi baita abuztuan, laugarren hilabetez jarraian jaitsi ere.

Hori dela-eta, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitaleko kontseilariari honako hau galdetzen diogu:

Zer balorazio egiten duzu Alemaniako testuinguru ekonomiko eta industriallari buruz eta horrek Nafarroan duen eraginari buruz?

Iruñean, 2024ko irailaren 5ean

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

11-24/POR-00265. Galdera, Ibarreko erkidego terapeutikoa ixteari buruzkoa*DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak egindako galdera, Ibarreko erkidego terapeutikoa ixteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martí-

nezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ekainean jakin zen itxi egin dela Ibarreko erkidego terapeutikoa. Erkidego horrek 25 plaza zituen, eta pazienteen tipologia oso zehatza artatzen zuen. Horiek, orain, ez dute laguntza hori edukiko.

Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dut:

Osasun Departamentuak zer ekimen abiarazi du edo abiaraziko du adikzio-arazoak dauzkaten pertsona horientzako arreta bermatzeko? zer epetan?

Iruñean, 2024ko irailaren 5ean

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

11-24/POR-00266. Galdera, Garapenerako Lankidetzaren Nafarroako Agentzia sortzeari buruzkoa

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, Garapenerako Lankidetzaren Nafarroako Agentzia sortzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko parlamentari Carlos Guzmán Pérezek, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

"Bizikidetzazko eta Berdintasunezko Legegintzaldi Berritzaile eta Aurrerakoira Programa-akordioa (2019-2023)" agiriaren euskarazko bertsioko 88. puntuak honako hau zioen:

"Garapenerako Lankidetzako Nafarroako Agentzia bat sortzeko aukera aztertu, Lankidetzarako III Plan Zuzentzailearen esparruan eta GKEen kontsentsuarekin".

Asmo hori ez zen azkenean gauzatu Nafarroako lankidetzarako III. Plan Zuzendarian (2021-2024), zeina bukatzeaz da une honetan.

Heldu diren hilabeteak funtsezkoak izanen direnez III. plan horren ebaluazioa egiteko eta Nafarroako lankidetzarako IV. Plan Zuzendaria taxutzeko, proposamen honek berriz hartu du garrantzia.

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuak gogoan al du Lankidetzarako Garapenerako Nafarroako Agentzia sortzea, Nafarroako lankidetzarako IV. Plan Zuzendarian aztertu eta sartzeko proposamen gisa?

Iruñean, 2024ko irailaren 6an

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-24/POR-00267. Galdera, Nafarroan etxebizitza dela-eta dagoen problematikari buruzkoa

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, Nafarroan etxebizitza dela-eta dagoen problematikari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera aurkezten du Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak irailaren 12ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak etxebizitzaren arloan Nafarroan dagoen arazo hain larriaren aitzinean erreakzionatuko al du?

Iruñean, 2024ko irailaren 5ean

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

11-24/POR-00268. Galdera, Europako Next Generation funtsen destinoari buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Europako Next Generation funtsen destinoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioko lehendakariak orain dela gutxi salatu zuen Europako Next Generation funtsak ez direla iritsi Nafarroako enpresa txiki eta ertaintara eta Nafarroara iritsi diren 550 milioi euroen % 25 soilik iritsi direla sektore pribatura. Zer balorazio egiten duzu salaketa horri buruz?

Iruñean, 2024ko irailaren 5ean

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

11-24/POR-00269. Galdera, Belateko tuneletako obraren aldi baterako enpresa-elkarte esleipen-hartzaileak obra-plana ez betetzeari buruzkoa

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak egindako galdera, Belateko tuneletako obraren aldi baterako enpresa-elkarte esleipen-hartzaileak obra-plana ez betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Pedro González Felipe jaunak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Belateko tuneletako obraren aldi baterako enpresa-elkarte esleipen-hartzaileak zergatik ez du bete proposatu zuen obra-plana?

Iruñean, 2024ko irailaren 3an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

11-24/POR-00270. Galdera, aurreikusitako inbertsioak erretiratzearen aitzinean Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuak egindakoari buruzkoa

ANA MARÍA ELIZALDE URMENETA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Elizalde Urmeneta andreak egindako galdera, aurreikusitako inbertsioak erretiratzearen aitzinean Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuak egindakoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ana Elizalde Urmeneta andreak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuo Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Volvok Altsasuko Sunsundeguin eta Flamasatsek Agoitzen aurreikusitako inbertsioak eginen ez dituztela iragarri baita, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuak zer neurri hartu ditu?

Iruñean, 2024ko abuztuaren 26an

Foru parlamentaria: Ana Elizalde Urmeneta

11-24/POR-00271. Galdera, Nafarroako presio fiskalari buruzkoa

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako galdera, Nafarroako presio fiskalari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioaren ele-dun José Javier Esparza Abaurrea jaunak honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuo lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Presio fiskala familientzat eta autonomoentzat jasanezina eta beste autonomia-erkidegoetan baino handiagoa dela egiaztatu baita, lehendakaria prest al dago Nafarroan zergak jaisteko?

Iruñean, 2024ko irailaren 5ean

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

11-24/POR-00272. Galdera, Osasun Departamentuaren eta bere kontseilariaren kudeaketari buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Osasun Departamentuaren eta bere kontseilariaren kudeaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra (PPN) talde parlamentarioaren eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak irailaren 12ko Osoko Bilkuran erantzuteko:

Lehendakariak nola kalifikatzen du Osasun Departamentuaren eta bere kontseilariaren kudeaketa?

Iruñean, 2024ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-24/POR-00273. Galdera, gastu-aurrekontua murrizteari eta zergak jaitzita nafarren erosahalmena hobetzeari buruzkoa

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako gaurkotasun handiko galdera, gastu-aurrekontua murrizteari eta zergak jaitzita nafarren erosahalmena hobetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikita dagoen María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduko 209. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gastu-aurrekontua murriztu eta zergak jaitzita nafarren erosahalmena hobetuko al duzu?

Iruñean, 2024ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: María Teresa Nosti Izquierdo

11-24/POR-00274. Galdera, 2025eko aurrekontuei buruzkoa

LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak egindako gaurkotasun handiko galdera, 2025eko aurrekontuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernua zer lehentasunen arabera ari da lan egiten gastu-sabaia ezartzeko eta 2025eko aurrekontuen aurreproiektua prestatzeko eta zer aurreikuspen darabil gastua handitzeari begira?

Iruñean, 2024ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

11-24/POR-00275. Galdera, Taxoareko kirol-instalazioak C.A. Osasunari saltzeko aukerari buruzkoa

DANIEL LÓPEZ CÓRDOBA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Daniel López Córdoba jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Taxoareko kirol-instalazioak C.A. Osasunari saltzeko aukerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko parlamentari Daniel López Córdoba, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak 2024ko irailaren 12ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Prentsaren bidez jakin ondoren abian dela operazio bat C.A. Osasunari saltzeko Taxoareko kirol-instalazioak, zertan dira instalazio horiek?

Iruñean, 2024ko irailaren 9an

Foru parlamentaria: Daniel López Córdoba

11-24/POR-00276. Galdera, Nafarroako Gobernuaren erronka eta jarduketari buruzkoa

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Gobernuaren erronka eta jarduketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2024ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñik, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak 2024ko irailaren 12ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Urte politiko berria hasi baita, zeintzuk izanen dira Nafarroako Gobernuaren erronka eta jarduketari buruzkoak?

Iruñean, 2024ko irailaren 9an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

11-24/POR-00277 . Galdera, bizikidetzaren arloko erronkei buruzkoa

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, bizikidetzaren arloko erronkei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2024ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Pablo Azcona Molinetek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilari Ana Olló Hualde andreak irailaren 12ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gorrotodiskurtsoen gorakadaren aitzinean bizikidetzaren alde lan egitea da Nafarroak daukan erronketako bat. Eta Memoria eta Bizikidetzako kontseilariari galdetzen diot: kontuan hartuta hurrengo hilabeteotan Bizikidetzaren Nafarroako II. Plana taxutzeari egin behar zaiola, nola egingen diozu aurre erronka handi horri?

Iruñean, 2024ko irailaren 9an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

11-24/POR-00278. Galdera, ERCren eta PSOEn arteko akordioari buruzkoa

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, ERCren eta PSOEn arteko akordioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioaren ele-dun José Javier Esparza Abaurrea jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernuko lehendakariaren ustez, ERCren eta PSOEn arteko akordioak espainiarren arteko berdintasuna hausten al du eta foru-araubideari kalte egiten al dio?

Iruñean, 2024ko irailaren 9an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

